


## BERRI OROKORRAK

2024ko urriaren 31n

8. zenbakia

### DBH4ko ikasleak artisau azokan

DBH4ko ikasleek gogorarazi nahi dizuegu biharko Artisau azokan etxean egindako gozogintzako produktuak saltzen egongo garela eta eskertuko genukeela zuen bisita jasotzea! Eskuratutako dirua ikasbidaiarako erabiliko dute. Plazan izango gara zuen zain!




### Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua

Udarregi Ikastolako LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egin dituzte Miren Rosekin. Saio horietan, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei.

**Gurasoekin:** azaroak 11, astelehena, 17:00etan Agerialdeko 3. solairuan.

Agertzeko asmorik baduzu, bete [galdetegi hau](#) azaroaren 7a baino lehen.



## Jangela-zerbitzua

Azaroan jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

### ❖ 3-16 urtekoen menuak

[Azaroko menua](#)

[Azaroko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

### ❖ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



### ❖ Prezioak (3-16 urte)

	2024-2025 ikasturtea							
<b>Bazkaldarraren perfila</b>	urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila	martxoa	apriila	maiatza
<i>Hilabeteka erabakiko du jangelara etortzea edo ez</i>	161,00 €	133,00 €	91,00 €	126,00 €	140,00 €	133,00 €	84,00 €	140,00 €
<i>Asteko 5 egunak etorriko da ikasturte osoan</i>	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €
<i>Astean 4 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira</i>	115,83 €	115,83 €	115,83 €	115,83 €	115,83 €	115,83 €	115,83 €	115,83 €
<i>Astean 3 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira</i>	78,19 €	78,19 €	78,19 €	78,19 €	78,19 €	78,19 €	78,19 €	78,19 €
<i>Irailean eta ekainean</i>	8,20 €							
<i>Menu Solteak</i>	8,20 €							

Norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00ak aurretik. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko.

### ❖ Prezioak (0 - 3 urte)

Hileko prezioa, irailetik uztaileira, 117 € izango da. Norbaitek izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00ak aurretik. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko.

## Errigora

Urriaren 24an hasi da Errigorako "Agerreko uzta euskarari puzka" kanpaina, eta **azaroaren 14ra bitarte** izango dugu eskaerak egiteko aukera. [Hemen](#) kartela eta eskaintza jasotzen duen dokumentua. Eskaerak [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunean egin daitezke edo Noaua!-ra bertaratuta. Banaketa Noaua!-ko egoitzan egingo da azaroaren 28 eta 29an.



## Txokolatedun egutegiaren salmenta

Aurten ere, Hendaiako **Gure Ikastolatik** beraien **txokolate-egutegien** salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena jaso dugu.

Egutegi horretan, abenduaren 1etik 24ra bitartean, egunero irekitzeko leihotxoak daude eta leiho bakoitzaren atzean, txokolate bat edo, egun bereziren batean, bina ere ager daitezke. Olentzero eta Maridomingi ere hor dabilta!

Txokolateak Baigorriko Laia txokolategikoak dira eta auzolanean gurasoek sartzen dituzte txokolateak kaxetan. Diseinua Asisko Urmeneta marrazkilariak egin da, eta egutegiari bertsoa Amets Arzallus bertsolari eta Ikastolako ikasle ohiak jarri dio.

Egutegi horren **salneurria 12 €-koa** da.

Erosi nahi duenak, bete [Txokolatedun Egutegia](#) inprimakia, **azaroaren 11a baino lehen**.



## "EUSKARAZ BIZI NAHI DUT" MATERIAL ESKAINTZA

"Euskaraz bizi nahi dut" mezuak indartsu eta argi transmititzen du euskararen aldeko jarrera. Horregatik da hain arrakastatsua.

Euskararekiko aldekotasuna ikusgarri jartzeko lagungarri gertatuko zaizuelakoan kamisetez gain, ogitartekoak biltzeko Boc'n'rolla eta botila ere eskaintzen dizkizuegu. Eta baita oso erabilgarriak diren kotoizko poltsak ere. Beti bezala, kanpaina honen **etekina euskalgintzaren proiektuetara** bideratuko da.

**Tutoreari jakinarazi** zein den aukeratutako produktua **azaroaren 5a** baino lehen (eskaera orria bera inprimatu eta betez edo papertxo batean aukera idatziz). **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanez).

**Produktuen irudi eta neurriak** [hemen](#) topatuko dituzue.



# HAUR-HEZKUNTZA

## HH1 eta HH 2ko guraso-bilerak

**Azaroaren 13an** arratsaldeko **17:30ean** Haur Eskolan, **1-2 eta 2-3** urteko haurren gusaroekin bilera egingo da.

\*Ez da zaintza zerbitzurik emango.

\*Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



## Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa bana ekarri behar dutela.



## Udal liburutegiko ekintzak

**Azaroaren 13an**, asteazkena, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, [IPUIN KONTAKETA HH3-HH5](#)eko haurrentzat.

Kontalaria: Miriam Mendoza.

Sarrera irekia, aforoa bete arte.



# LEHEN HEZKUNTZA

## LH 6koen irteera

Datorren **ostegunean**, azaroak 7, LH 6. mailakoak Zumaiara goaz trenez. ALGORRI, Zumaiako Natur Baliabideen Interpretazio Zentrora joango gara lehenik. Ondoren, Zumaiako FLYSCHAREN sekretuak argitzeko asmoz, oinezko ibilbide bat egingo dugu.



# DBH

## DBH4 irteera

Astelehenean 8:24etan trena hartu eta DBH4ko ikasleekin Donostiara goaz kutxa fundazioak eskaintzen duen INSPIRA BIZITZAK programara.

Inspira Bizitzak, 4. DBH, Batxiler eta Lanbide Heziketako (erdi mailako graduak) ikasleei bideratuta dago. Ikasleen eta hainbat profesionalen arteko elkartze puntu bat izatea du xedea, STEAM-eko hainbat esparruetan, hau da, zientzia-teknologia, artea, edota humanitatetan lana egiten duten profesionalak.

Parte hartzaileei, ibilbide akademiko eta irteera profesional anitzak erakustea bilatzen da. Entzute aktiborako eta hartu-eman zuzenerako espazioak sortzen dira, lan munduak eskaintzen dituen aukera, zailtasun eta kezken informazioaren elkartrukea bultzatuz.

## Hizkuntza-ikastaroak atzerrian

Urtero bezala, Hezkuntza Sailak, DBH 3., 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak 2025eko udan atzerrian diruz lagundutako ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak eta egonaldiak egiteko eskeintza zabaldu du. Eskerak egiteko epea **urriaren 29tik azaroaren 28ra** egongo da zabalik.

[Hemen](#) duzue informazio osoa.

